

PEIO TA PANTXOA

40 URTEZ GUREKIN KANTUZ

Peio ta
Pantxoa

40 urtez
gurekin kantuz

2009ko apirilaren 25a 20:30 / 25 avril
Baionako antzokian Théâtre de Bayonne

ikastolen alde

EUSKAL
RRATIAK

UDALBIDE

EUSKAL
GOBERNUA

bleu

2009ko Apirilaren 25a - 20 : 30 - Baionako antzokian

Bi argazkiak 1976an, Anoetan egin zen Bai Euskarari kantaldi animalean hartuak izan dira

Lehen aldia

1969ko maiatza, 21 urteko bi gaztek eman zituzten lehen aldikotz Telesforo de Monzonen kantu bat (Itziaren semea) eta Manex Pagolaren beste hirub (Ttakulin, Eñaut Bidegorri eta Jo bezate ezkilek). Batek gitarra jotzen zuen bainan tresna ez zen harena. Uztaritzerat jina zen Ez Dok Amairu taldean hasi berria zen Mikel Laboa izeneko Donostiar batek prestatua zion.

Lehen kantaldi horrek berak idatzi du Peio ta Pantxoaren 40 urteko ibilbidea. Euskal kantu berriaren eremaileak izanen dira Ez dok Amairu mogimenduaren ildotik, Telesforo de Monzon famatuaren kantuen interpreteak eta Manex Pagolarenetaz bestalde, beste ainitz Iparaldeko olerkari eta kantu idazleenak.



40 urte eta hainbat bidelagun

Telesforo de Monzonen interpreteak izaiteak, frankismoaren itzalaren pean ziren hego aldeko ateak idekiko dizkie lapurtar kantari bikoteari, bere anedokta, aldarrikapen eta sentsurarekilako gatusa eta saguaren jokoekin. Beren lehen dizka dobleak finkatuko du beren estiloa eta arrakasta. Bordaxuri, Urtxintxa, Irria, Batasuna, Lepoan hartu eta beste, bilakatuko dira beraieri lotuak diren himnoak. Eta urteak jin, urteak joan, kantuak presta eta dizkoak graba, Iparaldeko olerkari eta bertsularien hitzak ere taularatuko dituzte, beren baitarik dotzena bat kantu baizik ez direlarik aterako. Interprete, egile baino gehiago, beren bi botz eztiakilako moldeak, urteak eta hamarkadak kulunkatuko ditu.

Kantu ta musika egileak:

- Telesforo Monzon
- Manex Pagola
- Léon Saint-Esteben
- Manex Erdozainzi-Etxart
- Roger Idiart
- Iratzeder
- Xalbador
- Jean-Louis Davant
- Andoni Salamero
- Kantu herrikoiak

Dizkografia

- Itziaren semea (1969)
- Ez dut arima saldu (1970)
- Iguzki izanen duzu (1971)
- Ospital-Carrere (Elkar, 1975)
- Peio ta Pantxo (Edigsa-HG, 1975)
- Euskalduna naiz eta maite (Elkar, 1978)
- Bai Euskarari (Elkar, 1980)
- Bakezko besarkada batean (Elkar, 1985)
- Eguzkiaren musui (Elkar, 1990)
- 1969-1991 (Elkar, 1991)
- Oles ta oles (Elkar, 1997)
- Lapurtar koblariak (Elkar, 2002)
- Lurra eta maitasuna (Elkar, 2006)

40 urte gurekin kantuz

Moda eta denboraren ahantzuraren gainetik, Peio ta Pantxoak iraun dute eta belaunaldiz belaunaldi, beren kantagintza hedatu eta biziari. Beren estiloa aldatu gabe eta musikalki ongi lauzkatuak, hor ditugu 70garren hamarkadan hasi zen euskal kantu berriaren ordezkari eta herri hunen kantu gosearen hazle. Orain beren agerraldietarat familia osoak heldu dira, iraganaren ber biziartzeko eta mementoaren gozatzeko denak elkartuak.



Baionako Kantaldia

Baionako kantaldian Peio ta Pantxoak eskainiko dituzte ibilbide luze hortan zedarriz izan dituzten kantuak, hots denen gogo mihitan diren kantuak. Eta azken denbora hauetan, jendeak berreskuratzen duela kantatzeko gustua, pantaila haundi batean, kantu bakotxaren hitzak agertuko dira jendeak haiekin kanta dezan. Eskaintza ederra eta naturala, ikusiz zer heinetaraino beraien kantuak gu baitaratuak diren. Bestalde beren lagun dukete ere Iruneko kantari gazte bat zombait kantuentzat, **Laura Latienda**, hunek bestalde bere erreperorioaren jasta ere emanen duela.

Bost musikariek lagunduko dituzte Peio ta Pantxoak

- ✓ **Iñaki Dieguez** Eskusoinua
- ✓ **Michel Ducau** Gitarra
- ✓ **J.Michel Martineau** Baxua
- ✓ **Igor Telletxea** Bateria, Perkusioak
- ✓ **Ivan Allue** Flautak, Gaita desberdinak, etab...

Xehetasunak

Kantaldia Baionako Ikastolek antolatzen dute eta arratseko 8ak eterditan, hasiko da. Sartzea 12€koa da eta txartelak erosten ahal dira Elkar Megadendan eta Baionako antzokian beren idekitze tenoretan.

Elkarhizketendako Peio Ospital zuen galderei erantzuteko prest da.

Telefona: 05 59 29 74 78 – 06 82 59 30 54